



## LOYOLAKO OROITZA TXIKI BAT

Jose Ignazio Arana

Iturria: *Loyola-co oroitza txiki bat*, J.I. Arana-coac. 2-n aldiz: Lopez-en moldiztegia, 1888.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AranaJILoiola.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**LOYOLAKO  
OROITZA TXIKI BAT**

JESUS-EN LAGUN-ARTEKO  
J. I. ARANA-KOAK

BEAR DIRAN BAIMENAKIN

2. aldiz  
Tolosan: Lopez-en moldetegian  
1888-n



## OARKERAK

1. Berrogei eguneko barkamenak eman ditu Bitoriako Apaiz-nagusi jaunak, liburutxo onetan irakurtzeagatik.

2. Euskeraz jarraitu da bere izkribamodu eder berezkoak duen arau edo erregela au: «aiz esaten dan bezala, eskribitza, eta eskribitzen dan bezala, guzia irakurtea; egotzirik ortarako letra bakoitzari, ots edo aosoñu bat-bakarra beti».

## LOYOLAKO OROITZA TXIKI BAT

Iraurgiko ibar erdian, Urola ibaiaren ertzean, gure aurrekoak utzi diguten jaiera ta kristautasunaren oroimen miragarri au, edo Loiola deritzaiyon, nabarrizko etxekida andi ta galanta begiztutzen da gomuntatzean; *iru gauza*, berez bezala, bururatzen zaizka pensalari on bati; eta dirade, anziñako *aitakietxe* ta jauregiya, oso-oso oraindik, altiste baliozko bat bezala, Alkartegi erreal da andikoiaren barruban dirauena; Alkartegi bera bere egal biyak zabalik, arranoaren gisan, beraren barruski ta koroitzat Eleiza leundu biribilla kupoi urrezatuarekin dauzkala; eta ondoren kristau arte aiñ miraritsu orren erakai nausiya, edo leku agurgarri onetako Seme argidotarra, «Loiolako San Inazio, Jesusen Lagundiaren Moldatzallea».

Ori albistatzen dutenen irakaste protxuskorako, eskaintzen degu «Loiolako oroitza txiki au».



**I.**  
**LOYOLA ZAR DA**  
**ORAINGOAREN BERRI ZERBAIT,**  
**BERE JAUN ETA**  
**BURUZAYEN IZENAKIN**

Ala San Inazioaren aitaki-etxea gaurdanean eder da jaineraki «Loiolako Etxe Santua» deritzaiona, nola amarena Azkoitian Balda izenarekin arkitzen dana, txit nobleak dirade biyak Gipuzkoan, Aide Nagusienetakuak deitzen ziranak, eta eziñ-oroi-alako anziñatasunekoak.

Loiola-etxe txit agurgarriari ditxekanez, onen kondairatxoia bi denboralditan erdibitzen da berezki; zeñak izenda giñazke *Loiola Jaundarra* eta *Loiola Erljiosoa*. Lenengoak beragantzen du Oñaz ta Loiolako Jaunen kondaira, amairugarren eunkidatik asita 1682 urteraño, zeñetan asi zan Alkartegi Errealaren egitea, eta Etxe-Santuaren donagurtza bereziya, bertan S. Inazioaren semeak bizi ziradela; bigarrenak berriz etxegintza artatik gaurdarañokoa.

Oñaz-ko bereki-etxe anziñenetakoa, zeña Oñez da Oiñiz-en izenarekin ere izkribu zarretan arkitzen baida, Aita Henao-k dionez, Azpeiti mugapean Loiola inguruko mendi Oñazmendi-n zegoan, Oñaz bereko San Juan Ermita oraindik dirauenaren onduan. Oñaz ta Loiolako Martin Garzia San Inazio beraren anai zarrenak, bere ezkutu ta armarrietan garaitokiya Etxenausi Oñazkoarenai ematen diyo, ura dala bere aitonetakoa esanaz.

Aitatu degun A. Henaoren da beste agirikaletatik moldatu degu onako amazortzi Jaunen izen-illera au, zeñak Loiola-etxe ta gatzeluketzat ezagutu izan diran.

Garai artan bi kapilla zeuzkaten Loiolako Etxe Donean bizi ziranak; txikitxo bat erdiko bizitzan, eta beste aundiago bat goikoan. Bietako kapillautzat 1682 baño leenago izendatubak, bi bakarrak gaurdaño azaldu ditugu; bata, era berean Azkoitiko Alkartegian Erretore zan Aita, eta geroago beste Apaiz jaun bat. Oien biyen izenakin asitzen degu bada ondorengo izentegia, edo

**Amairugarren eunkidatik asita,**  
**Loiolako Etxejaunen erreskada**

1. Lope de Oñaz. 1180
2. Garzia Lopez de Oñaz. 1221
3. D. Lope Garzia de Oñaz y D.<sup>a</sup> Ines de Loyola. 4261
4. D. Juan Perez y D.<sup>a</sup> Ines de Loyola. 4280
5. Jaun Juan Perez de Loyola y doña Maria Perez de Loyola. 1321-1344
6. D. Beltran Yañez de Loyola y doña Ochanda de Leete. 1387-1402
7. D. Lope Garzia de Lazcano y doña Sancha Yañez de Loyola. 1418
8. Juan Perez de Loyola y D.<sup>a</sup> Sancha Perez de Iraeta. 1438
9. Beltran Yañez de Oñaz y Loyola y D.<sup>a</sup> Marina Sacra de Licona y Balda. 1467-1507
10. Martin Garzia de Oñaz y Loyola y D.<sup>a</sup> Magdalena de Araoz. 1498-1538
11. Beltran de Oñaz y Loyola y doña Juana de Recalde. 1538
12. D. Juan de Borja y Aragon y doña Lorenza de Oñaz y Loyola. 1552-1587
13. D. Pedro de Centellas y Borja y D.<sup>a</sup> Leonor de Borja, Oñaz y Loyola. 1585-1613
14. D.<sup>a</sup> Magdalena de Borja Oñaz y Loyola, hermana de D.<sup>a</sup> Leonor. 1614
15. D. Pedro de Zuazola Oñaz y Loyola y D.<sup>a</sup> Maria Nicolasa de Eguiguren. 1626-1644
16. D. Matias Ignacio de Zuazola Oñaz y Loyola y D.<sup>a</sup> Ana de Lasalde. 1668-1676
17. D. Jose Ignacio de Zuazola Oñaz y Loyola. 1663-1677
18. D. Luis Enriquez de Cabrera y doña Teresa Enriquez de Belasco y Loyola, Marqueses de Alcañizas y Oropesa. 1678-1681

Andre Markes Alcañizes-ko ta Oropesa-k seniberetu zuen Loiola-etxea, On Jose Inazio Zuazola-koa il zanean, zeren zetorren Martin Garzia Loiola-tar Jaunagandik; au alabaña, San Inazioaren illoba, aren anai zaarrenaren semea zan, Txile ta Peruko irabazkidetan otsandikoa, eta Peruko Buru-agintari edo Enperadore azkenengoaren arreba batekin



ezkonduba, zeñen ondorengoak baidirau Markes Alcañizazko ta Oropesak. Seniparte berri au artuta andik pixka batera, 1681-garren urtean, Errege Guzizkiro Carlos bigarrenaren ama zan, Doña Mariana Austriatar Españaako Erregiña goiargidotarrak eskatu zion beretzat Andre Markesari etxe-berezko Loiolakoa, Jesusen Lagundi edo Konpañiari emateko asmoarekin, an onek, aspaldi nai zan bezala, Alkartegio aundi bat egiñerazo zezan. Lendabizi Andre Markesak emaitza au egiteko zailtasun pixka bat bazedukan; bañan gero, nola oraindik semerik etzedukan, agindu zuen emate ura egingo zuela, baldiñ Jainkoak seme bat ematen bazion, bere aide done Inazioren bitartez; eta ala andik bederatzí illabetera, opa zuen seme bakarrak izan zuben, zeñari izena jarri zioten On Luis Enrikez Cabrerakoa. Bere eskañia leialki bete zuen, eta eskuratu zion benetan Erregiñari, eskatzen zan dana-guzia, baña erabide on batzuekin; leenengo, Eliz-atariko etxarpegi gañean, Erregeren armarripian, ipiñi zitezela nabarrietan, izkira, bere emate libre gogo onezkoa adirazten zutenak. Eta orregatik gaurko egunean bertan erregezkutuaren azpian irakurten da onako au:

«Jaun da Andre bikañenetako On Luis Enrikez Cabrerakoak eta doña Teresa Enrikez Velascorena Alcañizezko Markesak, Erregiña D<sup>a</sup> Maria Ana Austriatarrari gogo-berekiz Etxe-Santua eta bere patroitzia eman zioten 1681-n urtean».

Beste erabide leenenkoi batzuek ere jarritzen ditu bere *Loiolaren agerbide* 1851-an argitaratuan Ikasola-errealeko etxegille-maixu Don Fernando José Etxeberriakoak.

Gañera-berriz, Erregiña Doña Maria Ana Austriakoak baimen berriya edo emaitza aldeurrez Jesusen Lagunkidari 1682-n urteko otzailaren 19an egiten ziola, au bear ziran zuzenbide danakin, bertatik gaut *Etxe Santuba* deitzen dan Etxeberekiaz eta Alkartegi-erregekia altxazitzeko bearren zirren lur-ingurubaz jabetu zan, Aita Miguel Lazkibarkoaren bidez, zeña une artan Azkoitiko Bizietxeko Buruzai baizegoan. Etxe-Santuban bada leenengo aldiz 1682-n urteko Abuztuaren 14-an asita, bizi izando ziran lau Jesuita, oetako bat eta are bikañena zalarik A.B. Jeronimo Cordobakoa, zeñak edergarritu ta aberastu zuen asko Kapilla nausiyena, iritxirik ere gañera 1689-garren urtean bertan asiazitzea, gaur bertan miresten degun Eleiza balioetsua.

Loiolako Etxejaunak zeuzkaten Capillagatik, ango Kapillau izandu ziraden Apaizen artean 1682ko urtea baño leenagokorik, gaurdañoakoan bi besterik arkitzen ez ditugu; eta oien izenakin asitzen degu ondoren izentegia, edo

## Loiolako Etxe-Santu eta Biltegi Jesusen Lagundikoan izandako Buruzagi ta Kapillauen erreskada

1655: P. Juan Bautista de Santiago (desde Azcoitia.)

1671: P. Martin de Usabaraza, Pbro.

1682 á 1683: P. Miguel de Lazquibar, i tambien de la Residencia de Azcoitia.

1683 á 1685: P. Pedro Jerónimo de Córdoba.

1685 á 1686: P. Miguel de Lazquibar.

1686 á 1688: P. Andrés de Zupide.

1688 á 1689: P. Martin de Ibarra.

1689 á 1692: P. Francisco de Alesson.

1692 á 1695: P. Francisco Ballesteros.

1695 á 1702: P. Andrés de Zupide.

1702 á 1707: P. Fernando Navarrete.

1707 á 1709: P. Manuel Atanasio de Olano.

1709 á 1711: P. Francisco de Necolalde.

1711 á 1715: P. Pedro Caballero.

1715 á 1719: P. Salvador de Rivadeo.

1719 á 1734: P. Francisco de Baza.

1734 á 1739: P. Juan Escon.

1739 á 1741: P. Luis de Meneses.

1741 á 1743: P. Carlos de Olarte.

1743 á 1748: P. Francisco Javier Perez.

1748 á 1763: P. Fernando Ibañez.

1763 á 1765: P. Antonio Javier Perez

1765 á 1767: P. Juan Bautista de Mendizábal.

1767 á 1796: Misa los domingos sin capellan fijo.

1796 á 1806: P. Agustin de Sanz-berro, Abad de los PP. Canónigos Premonstratenses de Urdaz.

1806 á 1816: Misa los domingos sin capellan fijo.

1816 á 1820: P. Faustino Arévalo.

1820 á 1821: P. Pedro de Goia.

1821 á 1823: Misa los domingos sin capellan fijo.



- 1823 á 1824: P. Diego de Goitia.  
 1824 á 1827: P. Juan de Cortazar.  
 1827 á 1831: P. José de Etxezarraga.  
 1831 á 1835: P. Angel Vicente Zabaleta.  
 1835 á 1836: P. José Etxezarraga.  
 1836 á 1839: P. Manuel Gil.  
 1839 á 1841: P. José Tellez.  
 1841 á 1842: Misa los domingos sin capellan fijo.  
 1842 á 1843: P. Frai Alejo de Erausquin, Franciscano llamado

*Praille txikiya.*

- 1843 á 1852: P. Francisco de Abasolo, Prior Agustino.  
 1852 á 1855: P. Antonio Morey.  
 1855 á 1857: P. Andrés de Artola.  
 1857 á 1858: P. Pedro Portes.  
 1858 á 1860: P. Leonardo Olano.  
 1860 á 1862: P. Domingo Olascoaga.  
 1862 á 1868: P. Pedro Portes.  
 1868 á 1871: P. José María de Garciarena.  
 1868 á 1869: P. Martin de Goicoechea.  
 1869 á 1871: P. Martin de Aurquia.  
 1871 á 1873: Ningun capellan y sin misa aun en los domingos,  
 por órden del Marqués de Rocaverde.  
 1873 á 1876: P. José Maria Garciarena.  
 1876 á 1877: Sin capellan alguno fijo.  
 1877 á 1880: P. Venancio de Legarra.  
 1880 á 1883: P. Blas de Olano.

## II. SAN INAZIOREN, JESUSEN LAGUNDIAREN ETA ONEN SANTU EDO DONE, DOATSUEN ETA DIANAGUSIEN BERRI LABURTXXO BAT

### Loiolako San Inazioaren berri laburtxo bat

Aitalen otsandieneko San Inazio, Jesusen Konpañiaren fundatzailea, Eleiza Katolika edo Guziokikoaren gudagizon bortitza, Españaren da mundu osoaren onragarriarik aundiena, jaiotzen zana 1491-garretan, aita Azpeitiarra eta ama Azkoitikoa zitubela, Urola ibaiaren albuaren, anziñako gaztelu-etxe Loiolakoaren lenengo bizitzan, ifarsortaldeko ixkiñan, gaur luzagoturik, Ama Birjiña Doloretakoaren kapilla deritzaionean, nun Aita San Franzisko Borjak lenengo Meza eman baizubena.

Soldadutzan dierrialde ziarduela, Iruñean eritua izan zana 1521-en urtean; ta bere aitexean gaixo zegoala, oso Jainkoagana bihurtu zana, eta laster asmo artu zuben, beste oso espirituzko soldadutza berri bat, Eliza gudalariaren erdian moldatzeko, eta zeñaren eginkizuna izan bear zuben, Jainkoaren gloriarik andiena, eta animen betiko salbazioa billatzen saiatzea.

Urrengo urte 1522-an, Aranzazu eta Monserrateko Santutegietara pasa ondoren, Manresan penitenzi edo damu-lan gogorra egin zuen. Jerusalemeko leku santubak 1523-garretan ikustatu ta gero, apostoluen antzeko lanbide ikasikizun doneetan denbora igaro zuen, kontraldirik izugarrienen artean ere, lagunak bildurik Barzelonan, Alcalá, Salamanca, Paris, Erroma ta Benezian 1540-en urteratzen. Paristik bere jaioterri Azpeitira onen onbide andirako, gaxo txamar illabete batzuetarako itzuli zana 1535an. 1537-garretan apaiztu zana, ta aurrenengo Meza 1538-en urteko Gabonetan Erroman eman zuben. Andik bi urtera, 1540-an, Jesusen Konpañi edo Lagundiya sortuazi zuen, zeña oniritzi ta sendoiritzi



zuben Agorraren 27-en eguneko buldarekin Aita Santu Paulo III-ak. Aren leenengo Dianagusi autatua izan zanetik, azi, zuzendu, eraendu ta uganditu zuben bere eriotza santurañokuan, zeña gerdatu bai-zan Erroman, Ustaren 31-an 1556-en urtean. Doatsutu zuen Aita Santu Paulo V-ak, 1609-can, eta santuen mallara igo-azi Gregorio XV-ak 1622-en urtean.

### III. SAN INAZIOREN ZENBAIT ESANGUNZA ESPIRITUZKOAK, BERE ONRAKO ERREGU TA KANTALDI BATZUEKIN

#### San Inazioaren amabi esangunza

1. Gure asmoen begiratzea berezkoa izan bear du zertarako sortuba naizan ikusirik; au da Jainko gure Jaunaren alabanzako, eta nere animaren salbaziorako.
2. Nik autu edo aukera nezakean edozer gauza artarako lagunza bezela zuzendu bear det, zertarako egiña naizan; ez azken-muga egin bideza eraendu ta ekarririk, ezpada eginbidea azken-mugara.
3. Gauza bat edo beste nai izateko edo eukitzeko arrazoia, izan bedi bakar bakarrik Jainko itsaltsubaren serbitze, onore ta gloriya.
4. Txit banakak dira ezagutzea iritxitzen diranak, Jainkoak zenbat beren bidez egingo lukean, baldiñ, beren buruak ukaturik, Jaunarena eskubetara oso emango balirake Jainkozko Maisuaren eskui-ederrak landu ditzan.
5. Gure izate galdukorraren makurtasun okerrak erres menderatzen dirade, beti-betiko egi-andiyakarretaz burrutan erabiltzearekin.
6. Mundua alpertzamar ta arreta gabe serbitzean ez dijoa ezer asko; alabaña, nagitasunez Jainkua serbitzea, ezin-eraman lezakean gauza da.
7. Kontu-egin beza bakoitzak eze, zenbat eta bere amore, naitasun da interesatik aienatzen dan ainbat irabaziko duela espirituzko gauza guzietan.
8. Mundubari geiyegi bildur diyonak, ez du ezer gauz aundirik Jaungoikoagatik egingo.
9. Jainkuari bakarrik bildur izan bear zaio, eta munduaren esamezai irri egin.
10. Ez dago utsegite galgarriagorik espirituko gauzen maisu edo irakasleagan, nola-baitan, berak berenerazo bestek eraen nai izatea baño,



eta pensatzea berentzako ona dana, guztientzako dala ona.

11. Ez da zer-miretzi Jainkoak begiratzea, Beragan uste-osoan jartzen dutenai, arritzekoa litzake alakoai bakar utziko baliye.

12. Maitetasuna obra onakin obeto agertzen da itzakina baño.

### San Inazioaren eskeinza jaunari

Artu eta zerengana zazu, Jauna, nere libertade guztiya, nere oroimena, nere adimena, eta nere borondate guzia, nik dedan da euki nezakean guzti-guztiya; zuk eman ziñidazun, zuri, Jauna, atzera ematen dizut; dana da zurea, eta guziaz nai dezuna egin. Ekatzu zure amore ta graziya, bada auxe det naikoa.

### San Inaziok egiñ oi zion Erreguba Jesukristori

Kristoren anima, santutu nazazu.

Kristoren gorputza, salba nazazu.

Kristoren odola, azora nazazu.

Kristoren albako ura, garbi nazazu.

Kristoren eramanpena, sendo nazazu.

O Jesus ona! entzun nazazu.

Zere zaurien artean gorde nazazu.

Ez utzi neri, arren, Zugandik alde egiten.

Etsai gaistotik gorde nazazu.

Nere eriotzako orduan dei nazazu.

Eta Zugana joatea agindu zadazu,

Zere Santuakin alaba zaitzadan,

Eunkida guzi-guzietan, Amen.

### San Inazio Loiolakoaren ibilneurria edo martxea

#### Lehen parte

*(Batena)*

Inazio, gure Patroi andia,

*(Guztionea)*

Jesusen Konpañia

Fundatu

Eta dezu armatu:

Ez da ez etsairik

Jarriko zatzunik

Iñolaz aurrean

Gaurko egunean;

Naiz betor Luzifer deabrua

Utzirik infernua.

*(Berrira. Inazio, etc.)*

Zure soldaduak

Dirade aingeruak,

Zure gidaria

Da Jesus andia,

Garaitu dituzte zure anaiak

Etsaiak.

*(Birena)*

Ez dauka Fedeak

Ez kristau nerak,

Ez dauka bildurrik

Iñungo aldetik:

*(Guztionea)*

Inazio or dago

Beti ernai dago

Or dauka jendea

Txit garaitzallea

Bandera altxaturik

Gerran azaldu nairik.

*(Birena)*

Gau eta egun

Guztiok pakea dezagun

*(Guztionea)*

Beti gau eta egun.

*(Berrira. Zure soldaduak, etc.)*





## Bigarren partea

*(Batena)*

Inazio, bildu dezu munduan

*(Guziona)*

Arritzeko moduan

Jendea

Fede biziz betea,

Jende jakintsua

Eta indartsua,

Beti dabillena

Gerretan aurrena,

Elizaren etsaiak billatzen.

Topatu ta garaitzen.

*(Berriro. Ingazio bildu, etc.)*

Dituzu anaiak

Gerra egin-naiak,

Da oien legea

Etsai garaitzea;

Oiek ditu bere gordetzalleak

Fedeak:

*(Birena)*

Dirade ezagun,

Dabiltza gau ta egun

Europar, Asian,

Afrikan, Amerikan:

*(Guziona)*

Legorrez ta itxasoz

Dijoaz ta datoz,

Dabiltza nekean

Indio tartean,

Edo Errege-etxean

Jesusen izenean

*(Birena)*

Beti pelean

Bizitzak dirauben artean

*(Guziona)*

Beti beti pelean.

*(Berriro. Ditu zu anaiak, etc.)*

## Irugarren partea

*(Batena)*

Inazio, dira zure anaiak

*(Guziona)*

Itxas-gizon argiak

Arraunak

Bogatzen dakitenak:

Pedroren ontzia

Badago ertzia

Arroka tartean

Egunen batean

Bertatik botean dira sartzen

Eta argana juaten;

*(Berriro. Inazio dira, etc.)*

Sokakin loturik

Arroken artetik,

Baldiñ bada etsairik

Oiek garaiturik,

An daramate ontzia kaiera,

Leorrera:

*(Birena)*

Naiz izan ekaitza,

Bogatzeko gaitza

Eta bagen goiak

Naiz busti odeiak,

*(Guziona)*

Arraunak arturik,

Alkar alaiturik,

Botean sarturik,

Bizitzaz azturik,

Boa boa! deirik,

An dijoaz kaltetik

*(Birena)*

Bultzeaz killa,

Pedroren ontziaren billa,

*(Guziona)*



Beti bultzeaz killa.  
(*Berriro. Sokakin loturik, etc.*)

## San Inazioaren martxa berria, José Inazio Aldalur apaiz jaunak soñuz ipiñia

### KANTAURREA

Loiolako Inazioa;  
Euskaldunen Aita!  
Ekiñ dragoi Luzel-i  
Bertatik despita.

—Zure garaimen-kantak  
Gaurdanik asita,  
Sion-en aitu bitez  
Zerua irikita.

### KANTALDIAK

Eliz Ama Santa,  
Denon argiya!  
Ixildu negarrak  
Agertu alai;

—Ja ziezazu berriz  
Apainduriya,  
Koroiturik lorez  
Zere iduriya.

Zeradela Erregiñ  
Edertasunez,  
Parre, zorion ta  
Galaitasunez.

—Goza ezazu Jauna  
Deadar biguñez,  
Goza ezazu, ez iraun  
Samiñtasunez.

### AZKENA

Bere naigabeakin  
Biotzak suturik,  
Inazio andiari  
Guazen jarraiturik.  
—Segi zaiogun menaz  
Ezpatak arturik,  
Egan bezela guazen,  
Alkar alaiturik.

### OARKERA

Eskributxo onetan dagon geiena Erromako Jesuseneko eta Loiolako eskribu siniskoi gordeetatik atere dago; eta gañerakoa Santu Fundatzallearen bizi eskribalarietatik.